

BIGARRENA.- Foru agindu honen eranskin gisa ageri diren bi lanpostuak sartzea 2001eko martxoaren 22ko 148 zenbakiko Foru Aginduaren II. eranskinean; 2001eko martxoaren 26ko Araba Lurralde HISTORIKOAREN ALDIZKARIAN (35 zenbakia) argitaratu zen foru agindu horren bidez Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko lanpostuak betetzeko lehiaketarako deialdia egin zen.

BIGARRENA.- Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da Vitoria/Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari berari, hilabeteko epean, horrela xedatzen baitute Administrazio Auzien Araubideari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 116. artikuluan.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko apirilaren 11a.- Lehendakaritza Saileko foru diputatua, ALFREDO MARCO TABAR.- Funtzio Publikoko zuzendaria, ENRIQUE AGUIRREZÁBAL OTÁLORA.

SEGUNDO.- Incluir en el Anexo II de la Orden Foral número 148 de 22 de marzo de 2001, publicada en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 35 de 26 de marzo de 2001 por la que se convocó concurso para la provisión de los puestos de trabajo en la Administración General de la Diputación Foral de Álava, los dos puestos que se adjuntan como anexo a esta Orden Foral.

TERCERO.- Contra esta Resolución podrá interponerse, a partir del día siguiente a su publicación, recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz o, potestativamente, recurso de reposición, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, de acuerdo con lo previsto en el artículo 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, en relación con el artículo 116 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 2001.- El Diputado Foral titular del Departamento de Presidencia, ALFREDO MARCO TABAR.- El Director de Función Pública, ENRIQUE AGUIRREZÁBAL OTÁLORA.

Eranskina

KODEA	IZENA	DED. ERREG.			BETETZE MODUA	BERTAN JARDUTEKO BETEBEHARRAK				LANSARIAK		LANTOKI HERRIA	
		BZN.	EZ. JOR.	PRESTA.		ATXIKIPENA TL	IKASKETA ADM.	HIZKUNTZA TITULAZIOA	BERARIAZKO EZAUPIDEAK	D.O. MAILA	BER. OSAG. PEZETATAN		
ZUZENDARITZA: ZERBITZU OROKORRAK													
30.1.01	ANTOLAKETA												
1413.007	Z. OROKORRETAKO ADM. LAG.	S			C	CD	A.F.A.		2		15	1.514.008 pta	VITORIA -GASTEIZ
ZUZENDARITZA: HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURA													
50.3.02	ARKITEKTURA												
1480.009	HIRIGINTZA ETA ARKITEKTURAKO ADM. LAGUNTAILEA	S			C	CD	A.F.A.		2		15	1.514.008 pta	VITORIA-GASTEIZ

Anexo

CODIGO	DENOMINACION	REG DEDICACION			F PROV.	REQUISITOS PARA SU DESEMPEÑO				RETRIBUCIONES		LOCALIDAD DESTINO	
		INCOM	PEN.HOR	DISPON.		ADSCRIPCION GR	TITULACION ADMON	PERFIL ACADEMICA	CONOC. LINGUISTICO	CONOC. ESPECIFICOS	C.D		COM.ESPECIFICO PESETAS
DIRECCIÓN: SERVICIOS GENERALES ORGANIZACION													
30.1.01	ORGANIZACION												
1413.007	AUXILIAR ADMVO. SERV. GRALES	S			C	CD	D.F.A.		2		15	1.514.008 pta.	VITORIA-GASTEIZ
DIRECCIÓN: URBANISMO Y ARQUITECTURA ARQUITECTURA													
50.3.02	ARQUITECTURA												
1480.009	AUXILIAR ADMVO. URBANISMO, ARQUITECTURA	S			C	CD	D.F.A.		2		15	1.514.008 pta.	VITORIA-GASTEIZ

HERRILAN ETA HIRIGINTZA SAILA

2.347

297/2001 FORU AGINDUA, martxoaren 27koa, Iruña Okako udalerriko Trespuentesko T1-USE sektorearen Plan Partzialaren dosierrari buruzkoa

"Iruña Okako udalerriko Trespuentesko T1-USE sektorearen Plan Partzialaren dosierra ikusi ondoren.

AURREKARIAK

Lehena.- Iruña Okako Udalak Trespuentesko T1-USE sektorearen Plan Partzialaren dosierra igorri zion Foru Aldundiari behin betiko onar zezan (Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2000ko azaroaren 15ean sartu zen igorritako idazkia, 199944 zenbakiarekin).

Bigarrena.- Udalak, 2000ko azaroaren 22an, dosier horri hasierako onarpena ematea erabaki zuen, eta jendaurrean ipini zuen erakusgai hamabost egun baliodunez, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALAREN 2000ko martxoaren 6ko 28. alean eta 2000ko otsailaren 26ko "El Correo" egunkarian iragarki bana argitararaziz, eta are Planaren eragina jasango duten jabeen berariazko jakinarazpena eginez ere.

Dosierra jendaurrean egon zen artean alegazio bat aurkeztu zen, 6 puntu lantzen zituen; Udalak horiei buruzko txosten teknikoak egin eta ezetsi egin zuen alegazio horren 5. puntua, eta gainerakoak onartu egin zituen.

DEPARTAMENTO DE OBRAS PUBLICAS Y URBANISMO

2.347

ORDEN FORAL 297/2001, de 27 de marzo, en relación con el expediente de Plan Parcial del sector SAU-T1 de Trespuentes en el municipio de Iruña de Oca.

"Visto el expediente de Plan Parcial del sector SAU-T1 de Trespuentes en el municipio de Iruña de Oca.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante escrito, con número 19944 y fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 15 de noviembre de 2000, el Ayuntamiento de Iruña de Oca remite expediente de Plan Parcial del sector SAU-T1 de Trespuentes para su aprobación definitiva.

Segundo.- La aprobación inicial del expediente fue acordada por el Ayuntamiento de Iruña de Oca el día 22 de noviembre de 2000, sometiéndose a información pública por el plazo de quince días hábiles, mediante anuncios publicados en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, número 28 de 6 de marzo de 2000, en el diario "El Correo" del día 26 de febrero de 2000, e incluso mediante notificación expresa a los propietarios afectados por el Plan.

Durante el periodo de información al público fue presentada una alegación con seis consideraciones y, tras los informes técnicos municipales, fueron desestimado el punto 5 y estimados el resto.

Udalbatzarrak, 2000ko urriaren 5eko bilkuran, dosierrari behin-behineko onarpena emateko erabaki zuen, eta Arabako Foru Aldundiari gortzea behin betiko onar zezan.

Hirugarrena.- Dosierra aztertu eta formako eta edukiko hainbat akats dituela ikusita, Iruña Okako Udalari eskatu zitzaion akats horiek zuzentzeko agiriak aurkez zitzala, eta administrazioaren isiltasun positiborako epea etenda gelditu zen. Iragan 2001eko martxoaren 12an iritsi zen hona aldatutako agiri berria, eskatu zitzaion agiriak bere baitan zeuzkala.

OINARRIAK

Lehena.- Plan Partzial honek Iruña Okako udalerriko Trespentesko "T1-USE" sektorearen antolamendu xehatua du helburu, udalerririk horretako Ordezko Arauak garatzeko tresna den aldetik.

Bigarrena.- Agiriaren edukia aztertu eta indarrean den hirigintzako legerian eta Ordezko Arauetan ezarritako xedapenak betetzen dituela egiaztatu da.

Horren ondorioz, neureak ditudan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATU DUT:

Lehena.- Iruña Okako udalerriko Trespentesko T1 USE sektoreko Plan Partziala behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Ebazpen hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka nahierako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; edo, bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; ondoko arau hauei jarraituz egin ahal da hori: Administrazio Prozedura Erkidearen 116 eta 117 artikulua —urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori— eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua.

Horrek guztiak ez du kentzen bidezko irizitako beste edozein errekurtso erabili ahal izatea."

Herrilan eta Hirigintza Saileko foru-diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

ORDENANTZAK

1. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTZEPTUEN TERMINOLOGIA.

1.1. OINARRI OROKORRA.

Plan Partzial honetako ordenantzak Iruña Okako eta hango udalerririk Ordezko Arauetan jasota dauden Hirigintzako Arauen garapena eta egokitzea dakarte, eta onartzen diren unetik bertatik hasita T1 U.S.E. sektorearen hedadura guztian ezartzekoak dira.

1.2. XEDEA.

Aurreikusita dagoen antolamenduaren irizpide orokorren arabera ezarri dira Ordenantza hauek, hainbat kontratistek burutuko dituzten eraikinetako eta urbanizazio osagarrietako emaitza bermatze aldera; eremu osoan zehar, multzoa osatuko duten unitate guztiak irizpide bakar bati jarraituz eta nolabaiteko malgutasunarekin burutzeko modua bilatu da.

1.3. GAIA.

Lursailen erabilerarekin, bolumenarekin, zertarakoarekin, eta hala eraikuntzaren nola Planaren edukian ageri diren elementu naturalen estetika eta sanitate aldeko betekizunekin zerikusia duen oro zehaztu da ordenantza hauetan,

1.4. BETEBEHARREKOTASUNA.

Ordenantza hauetako artikulua sektorearen eremuaren barruan egingo diren obra guzti-guztiei aplikatuko zaizkie, nahitaez.

1.5. GAUZATZEA.

Plan hau gauzatzeko 3.2. idatz-zatian ezarritako sistemari jarraituko zaio

Urbanizazio-lanak ekimen pribatuaren bitartez gauzatzeko dira, zeinahi dela ere horien gastuak ordaintzea dagokion subjektu publiko edo pribatua.

El Pleno de la Corporación Municipal en sesión del día 5 de octubre de 2000 acordó aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Alava para su aprobación definitiva.

Tercero.- Examinado el expediente se observaron algunas deficiencias formales y materiales, por lo que se solicitó al Ayuntamiento de Iruña de Oca que aportase la documentación para subsanar dichas deficiencias, quedando suspendido el plazo para el cómputo del silencio administrativo positivo. El pasado día 12 de marzo de 2001 se recibió el nuevo documento modificado, incluyendo en el mismo la documentación requerida.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente Plan Parcial tiene por objeto la ordenación pormenorizada del sector "SAU-T1" de Trespuentes en Iruña de Oca, como instrumento de desarrollo de las Normas Subsidiarias de este municipio.

Segundo.- Analizado el contenido del documento, se comprueba que cumple las determinaciones establecidas en la legislación urbanística vigente y en las Normas Subsidiarias.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan Parcial del sector SAU-T1 de Trespuentes en el municipio de Iruña de Oca.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Tercero.- Contra la presente Resolución podrá ser interpuesto recurso potestativo de reposición ante el mismo Órgano que ha dictado la misma, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación, o ser impugnada directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley de Procedimiento Administrativo Común, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero, así como en el artículo 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Todo ello, sin perjuicio de que puedan ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente."

El Diputado Foral titular del Departamento de Obras Públicas y Urbanismo, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

ORDENANZAS

1. GENERALIDADES Y TERMINOLOGIA DE CONCEPTOS.

1.1. BASE GENERAL.

Las ordenanzas del presente Plan Parcial, comprenden las acomodaciones y desarrollo de las Normas Urbanísticas contenidas en las Normas Subsidiarias de Iruña de Oca y su término municipal, y regirán desde el momento de su aprobación en toda la extensión del Sector S.A.U. T1.

1.2. FINALIDAD.

Se establecen las presentes Ordenanzas, de acuerdo con los criterios generales en la ordenación prevista, a fin de asegurar el resultado de los edificios y urbanizaciones complementarias, ejecutados por distintas contratas, permitiendo realizar en todo el área, con un solo criterio y dentro de una relativa elasticidad, las distintas unidades que integran el conjunto.

1.3. OBJETO.

Se define en las presentes Ordenanzas todo cuanto afecta a los terrenos en orden a su uso, volumen, destino, condiciones estéticas y sanitarias, tanto de la construcción como de los elementos naturales que figuran en la confección del presente Plan.

1.4. OBLIGATORIEDAD.

Los diversos artículos de las presentes Ordenanzas, deberán aplicarse obligatoriamente a todas y cada una de las obras que se realicen en el interior del área.

1.5. EJECUCION.

El desarrollo de este Plan se hará por el sistema señalado en el apartado 3,2.

Las obras de urbanización, con independencia del sujeto público o privado a quien corresponda sufragar, se ejecutarán por iniciativa particular.

1.6. EDUKIA ETA INDARRALDIA.

Plan Partzialaren proiektuaren plano eta idatzizko agiri guztiak dira ordenantza hautako zati.

Ordenantza hauetan definitzen edo arautzen ez den gainerako guztian Iruña Okako Ordezko Arauetako Eraikuntzako Ordenantza Orokorrak aplikatuko dira.

Urbanizazioaren eta Eraikuntzaren arloan indarrean diren erregelamendu guztiak, baita gero ager daitezkeenak ere, nahitaez bete beharrekoak dira.

Horien artean daude igogailuen erregelamendua, instalazio elektrikoena, iturgintza eta saneamendukoa eta abar.

Plan partziala behin betiko onartzen den egunean sartuko dira indarrean ordenantza hauek, eta Plan Partzial hau berrikusi arte edo bereganatuko duen beste Plan Partzial berri bat idatzi arte iraungo dute indarrean.

1.7 OBRA BAIMENA.

Plan Partzial honen eremuaren barruan edozein obra egiteko udalaren baimena beharko da.

Agiriak aurkezteko Ordezko Arauetan ezarritakoari jarraituko zaio.

Ordezko Arauetako ordenantza orokorretan zehaztuko da zein obrak behar duen obra-baimena.

Obra-baimena: Arau hauetan eta Ordezko Arauetan baimendutakoa betez gero emango du Udalak obra-baimena.

Ez da emango obra txikietarako baimenik, ezta margotzeko bada ere, eraikinen fatxadetan aldaketa partzialak eragiten badira.

1.8. IKUSKAPEN URBANISTIKOA.

Arauk eta Plana betetzen direla bermatzeko beharrezkoa den ikuskapena egingo du Iruña Okako Udalak, indarrean diren legezko xedapenek ematen dizkieten ahalmenen arabera, egin ere.

2. LURZORUAREN HIRIGINTZAKO ERREGIMENA.

Hiri-lurzoruaren hirigintza-erregimena indarrean den 1997ko Lurzoruaren Legearen 19. artikuluan ezarritakoa da.

2.1. LURZORUAREN KALIFIKAZIOA ETA XEHATUTAKO ERABILERAK

Plan Partzial honek hiri-lurzorutzat jotzen du zedarritutako perimetro osoa. Horren barruan, kalifikazio hauek bereiz daitezke:

2.1.1. Bizitegietarako lurzoru urbanoa, Irabazpidezko aprobetxamendukoa.

2.1.2. Espazio librean sistema lokala (plaza, lorategi eta abar)

2.1.3. Komunitate-ekipamenduko sistema lokala.

2.1.4. Komunikazioko sistema lokala (bide eta aparkalekuak).

2.1.5. Interes publiko eta sozialeko zerbitzua.

Iruña Okako udalerriko Ordezko Arauetako Hirigintzako Arauetan zehazten dira lurzoru-mota bakoitzaren gainean baimentzen diren erabilera xehatuak.

2.2. URBANIZAZIO PROIEKTUAK LANTZEKO ARAUAK, HIRI DISEINU ETA ALTZARITERIA.

2.2.1. Definizioa.

Urbanizazio Proiektua Plan Partzialak aurreikusten dituen urbanizazio-obra eta -zerbitzuei buruzkoa izango da; hala ere, Plan Partzialean jasotzen ez diren obra eta zerbitzuak ere hartu ahal izango ditu bere baitan, hala nola zabor-hustutzea, komunitate-berogailua, zuhaitzak landatzea, eta abar.

Plan Partzialak aurreikusten ez dituen zerbitzuak, hala nola zabor-hustutzea eta antzekoak, hiru urte baino gehiago behar badute ezarri ahal izateko, Proiektuan jaso beharko dira nahitaez.

Edozelan ere, honako obra eta zerbitzu hauek sartu beharko dira urbanizazio-proiektuan: galtzadak zolatzeko obrak eta aparkalekuak, espaloiak eta plaza publikoak egitekoak; eta zerbitzuei dagokionez, euri-urak hustea, ur beltzak hustea, behe tentsioaren banaketa, herri-argiteria, telefonia eta gasa eta edateko uraren hornidura (aurreikusitako ur-emaria izango dela egiaztatuta).

2.2.2. Urbanizazio-proiektuen agiriak.

A) Antolamenduko Plan Partzialaren onarpenaren aipamena, gauzatu nahi den urbanizazioaren oinarria baita, eta horrekin batera beste

1.6. CONTENIDO Y VIGENCIA.

Todos los planos y documentos escritos del proyecto de Plan Parcial, forman parte de las presentes Ordenanzas.

En todo aquello no definido ni regulado en las presentes Ordenanzas, serán de aplicación las Ordenanzas Generales de Edificación de las Normas Subsidiarias de Iruña de Oca.

Todos los reglamentos en vigor, referentes a materia de urbanismo y construcción así como los que aparezcan en el futuro, son de cumplimiento obligatorio.

Entre estos Reglamentos figuran los de aparatos elevadores, reglamentos e instalaciones eléctricas, de fontanería y saneamiento, etc.

La fecha de entrada en vigor de las presentes Ordenanzas será la de aprobación definitiva del Plan, y su vigencia durará hasta la revisión del presente Plan Parcial, o la redacción de otro nuevo que lo abarque.

1.7. PERMISOS DE OBRAS.

Para ejecutar cualquier obra dentro de este Plan Parcial, se precisará licencia municipal.

Para la presentación de documentos regirán las Normas establecidas en las Normas Subsidiarias.

Serán objeto de licencia de obra, las especificadas en las Ordenanzas Generales de las Normas Subsidiarias.

Licencia de obra: El ayuntamiento concederá licencias de obras, siempre que se cumpla lo autorizado por estas Normas y las Normas Subsidiarias.

No se autorizarán permisos de obra menor, ni siquiera pintura que implique modificaciones parciales en las fachadas de los edificios.

1.8. INSPECCION URBANISTICA.

El ayuntamiento de Iruña de Oca, realizará la inspección necesaria para garantizar el cumplimiento de las Normas y Plan, conforme a las facultades que le conceden las disposiciones legales vigentes.

2. REGIMEN URBANISTICO DEL SUELO.

El régimen urbanístico del Suelo Urbano es el señalado en el artículo 19 y siguientes de la vigente Ley del Suelo de 1997.

2.1. CALIFICACION DEL SUELO Y USOS PORMENORIZADOS

El presente Plan Parcial establece la clasificación del Suelo Urbano para todo el perímetro delimitado. Dentro del mismo, se distingue la siguiente calificación:

2.1.1. Suelo Urbano Residencial de Aprovechamiento Lucrativo.

2.1.2. Sistema Local de Espacios Libres, (plazas, jardines, etc.).

2.1.3. Sistema Local de Equipamiento Comunitario.

2.1.4. Sistema Local de Comunicaciones, (viales y aparcamientos).

2.1.5. Servicios de Interés Público y Social.

Los usos pormenorizados permitidos sobre cada tipo de suelo son los señalados en las Normas Urbanísticas contenidas en las Normas Subsidiarias Municipales de Iruña de Oca.

2.2. NORMAS PARA EL DESARROLLO DE PROYECTOS DE URBANIZACION, DISEÑO Y MOBILIARIO URBANO.

2.2.1. Definición.

El proyecto de Urbanización se referirá a las obras y servicios de esta clase, previstos en el Plan Parcial, sin perjuicio de ampliarlo a obras o servicios posibles o previsibles, no comprendidos en aquél, como pueden ser los de evacuación de basuras, calefacción comunal, plantaciones de arbolado, etc.

Cuando servicios no previstos en el Plan, como los de evacuación de basuras u otros análogos puedan establecerse en plazo no inferior a tres años, se comprenderán necesariamente en el Proyecto.

En todo caso, se incluirán las obras de pavimentación de calzadas, aparcamientos aceras y plazas públicas y los servicios de evacuación de pluviales, evacuación de fecales, distribución de baja tensión, alumbrado público, telefonia y gas y de suministro de agua potable, con justificación de que puedan disponer del caudal previsto.

2.2.2. Documentos de los proyectos de urbanización.

A) Referencia a la aprobación del Plan Parcial de Ordenación en el que se base el de urbanización que se pretende ejecutar, acom-

hauek: onartutako antolamenduaren planoak; multzo urbanoari eta Plan Partzialari buruz obrek izango dituzten kokalekuen planoak; eta segidan aipatzen diren espazio hauen mugak zedarritzen dituzten planoak: bideetarako (bai ibilgailuenak bai oinezkoenak) gordetako espazioak, parke eta lorategiak eta jendea egoteko eta laketzeko beste espazio batzuk, komunitate-erabilerrako lursail pribatuak, eraikin publikoetarako lurzatiak eta eraikin pribatuetaarako lurzatiak.

B) Azalpen-memoria bat, proiektuan jasotzen diren neurriak justifikatzeko kalkuluak eta erabiliko diren materialak zehaztuz.

C) Oin-planoak, eta beharrezkoak diren luzetarako eta zeharkako profilen planoak ere bai; orobat, proiektuaren osagai bakoitzaren xehetasuneko planoak eta gauzatu nahi diren obrak zehazki definitzeko beharrezkoak diren gainerako guztiak.

D) Aurrekontua, eta obren neurriak metrotan, eta beren koka-pena.

E) Obra eta instalazioak gauzatzeko baldintza ekonomiko-teknikoen orria, obrak hasteko agindua eta horien planoak dauzkala.

2.2.3. Bideak zolatzea.

Zolatze-obren kalkulua egiteko hauek hartuko dira kontuan: beharrezkoak diren bidezoru-geruzen lodiera eta nolokotasuna, bai eta gurpil-geruza egiteko erabiliko den materiala, eta zoladura zein bide-tan egingo den, horiek nolakoak diren eta zer trafikoa izango duten.

Zoladura behar bezala trinkotutako zapalgunearen gainean eraikiko da, eta buztin-lurrezko eta zabortegiko guneak ekidin egingo dira.

Ezpondak egokiro trinkotzea nahitaezkoa izango da.

Beharrezkoa den tokietan, azpoinarri iragazkorak ipiniko dira, eta zoladuraren azpiko geruzetan gehiegizko hezetasuna eragozteko drainabideak ere bai.

Drainabideek euri-uren husketa-sarean hustuko dituzte urak, eta azaleko urak biltzeko ere hustulekuak ezarriko dira.

Bide ondoko lurzoruen artean mailak egonez gero, beharrezkoak diren ezpondak %33ko malda izango dute gehienez, eta eusteko ormak ipiniko dira, behar den lekuetan.

Zoladura bi alditan egingo da, aldi bakoitzean geruza bana: lehenak urbanizazioko eraikinak eraiki behar diren aldirako balio izango du, eta geruza horretako zoladura azpoinarriaz eta aldi baterako gurpil-geruzadun azken oinarriaz egongo da osatuta. Bigarren geruza egitearekin azken gurpil-geruza eraikiko da, lehenengo ekinaldiko geruzaren gainean, baldin eta birreraiki behar izateko moduan hondatu ez bada.

2.2.4. Edateko uraren hornidura eta banaketa.

Sarearen banaketa-eskema Plan Partzial honetan dago adierazita, dagokion planoan, eta herriko kaleen trazaketari darraio.

Uraren jatorriari buruz, nahitaez bete beharrezko araudia hartuko da kontuan: 928/1979 Errege Dekretua, "gizakiek kontsumitzeko ur-horniduren osasun-garantiei" buruzkoa.

Edateko urez hornitzea helburu duten urbanizazio-obren diseinuan eta gauzapenean EAT.IIH arauan (Eraikuntzari buruzko Arau Teknologikoak. Iturgintzako Instalazioak: Hornidura") aurreikusitakoa hartu behar da aintzat.

Sarearen kalkulua egiteko, batez besteko kontsumoa 300 l/e.o. izango da. Gehieneko kontsumoa kalkulatzeko, batez bestekoa 3,0-rekin biderkatuko da. 38 biztanle aurreikusten direnez (3,50 bizt/etxeb.) gehieneko kontsumoa $3 \times 0,30 \times 38 = 34,20 \text{ m}^3$ izango da.

Gutxieneko presioa 1 atmosfera izango da, eta kontsumo handieneko egun baten adinako gaitasuna bermatu behar da deposituen bitartez.

Era berean, eraikuntzetan suteetatik babesteko NBE-CPI-96 ize-neko oinarriko araudian xedatutakoa bete behar da. Beraz, 80 mm.-tako ur-hartuneak ipiniko dira seinaleztatutako leku irisgarrietan, beren artean, gehienez, 200 m-ko tartekak utziz. Ur-hartuneak hornitzeko sareak bi orduz eguneko 500 l/minutu-ko emaria jasateko gaitasuna eduki behar da.

Parke eta lorategietan ureztatzeko sare bat ezarriko da, eguneko $20 \text{ m}^3/\text{Ha}$ -ko gutxieneko kontsumokoa.

pañado de los planos de la ordenación aprobada, de los de situación de las obras, en relación con el conjunto urbano y con este Plan Parcial, y de los que definen los límites de los espacios destinados a viales (vehículos y peatones), de los parques y jardines y otros espacios de estancia y disfrute público, de los terrenos privados de uso comunitario, de las parcelas dedicadas a edificios públicos, y de las parcelas de edificación privada.

B). Memoria explicativa, detallando los cálculos justificativos de las dimensiones y materiales que se proyectan.

C). Planos de planta y de los perfiles longitudinales y transversales necesarios, así como los de detalle de cada uno de sus elementos y cuantos sean necesarios para definir concretamente las obras que se pretenden ejecutar.

D). Presupuesto con su metrado y ubicación.

E). Pliego de Condiciones económico-facultativas que regirán en la ejecución de las obras e instalaciones, en el que se incluya la orden de ejecución de las mismas y los planos.

2.2.3. Pavimentación de viales.

Para el cálculo de las obras de pavimentación se tendrán en cuenta, tanto el espesor y naturaleza de las capas de firmes necesarios, como el material a emplear en la capa de rodadura, el carácter y el tráfico de las vías de que se trate.

El pavimento debe construirse sobre una explanación convenientemente consolidada, evitando las zonas de vertedero y los terrenos arcillosos.

Será obligatoria la adecuada compactación de los terraplenes.

Donde sea preciso, se establecerán subbases permeables y drenajes para suprimir la posibilidad de un exceso de humedad en las capas subyacentes del pavimento.

Los drenajes desaguarán a la red de evacuación de aguas pluviales y se instalarán sumideros para la recogida de aguas de superficie.

Cuando existan desniveles en las proximidades inmediatas de las vías, estos desniveles se tratarán de forma que los taludes que sean necesarios tengan una pendiente máxima del 33%, colocando muros de contención en los lugares necesarios.

La pavimentación se realizará preferentemente en dos capas; la primera servirá para el periodo de construcción de los edificios de la urbanización, debiendo estar constituido el pavimento por subbase y la base resistente definitiva con una capa de rodadura provisional. En la segunda etapa, se construirá la capa de rodadura definitiva, que se instalará sobre el pavimento de la etapa 1ª siempre que no se aprecien deterioros de importancia que obliguen a su reconstrucción.

2.2.4. Abastecimiento y distribución de agua potable.

El esquema de distribución de la red se refleja en el plano correspondiente del presente Plan Parcial, siguiendo el trazado de las calles públicas.

Se tendrá en cuenta la normativa de obligado cumplimiento sobre el origen del agua: Real Decreto 928/1979 sobre "Garantías sanitarias de los abastecimientos de agua con destino al consumo humano".

Para el diseño y ejecución de las obras de urbanización que tengan como objeto el abastecimiento de agua potable, se tendrá en cuenta lo previsto en la NTE. IFA ("Normas Tecnológicas de Edificación. Instalaciones de Fontanería: Abastecimiento").

Para el cálculo de la red el consumo medio será de 300 l/h.d. El máximo para el cálculo se obtendrá multiplicando por 3,0 el consumo diario medio. Teniendo en cuenta que la población prevista es de 38 habitantes (3,50 hab/viv.), el consumo máximo será $3 \times 0,30 \times 38 = 34,20 \text{ m}^3$.

La presión mínima = 1 atmósfera y deberá asegurarse una capacidad mediante depósitos de volumen igual a un día punta.

Se cumplirá asimismo lo dispuesto en la Normativa Básica NBE-CPI-96 de protección contra incendios en los edificios. Por tanto se colocarán hidrantes de tipo 80 mm. en lugares accesibles y señalizados y a una distancia entre ellos de 200 m. como máximo. La red de alimentación de los hidrantes será capaz de admitir un caudal de 500 l/minuto durante 2 horas.

En las zonas de parques y jardines se preverá una red para riego con un consumo mínimo diario de $20 \text{ m}^3/\text{Ha}$.

2.2.5. Euri-urak eta saneamenduko urak hustea.

Bilketa-hodien banaketaren eskema Plan Partzialean dago adierazita, dagokion planoan, eta herriko kaleen trazaketari darraio.

Bereizketa-sistema erabiliko da: euri-urak eta hondakin-urak bereizitako bilketa-hodien bitartez hustuko dira.

Euri-urak erre kara hustuko dira zuzen-zuzenean.

Arazketa-sistemari dagokionez, EAT-15D/74 (Osasungarritasun-instalazioak: arazketa eta isurketak) araudiko xedapenak eta arlo horretako legeria bete beharko dira. Bilketa-hodi publikorantz bideratutako sareko isurketa-gunea aurreikusitako egin beharko da; isurketa, sestrean arteko maila dela eta, ponpa bidez egin beharko da.

Diseinurako EAT-ISA-73 araudia hartuko da kontuan (Osasungarritasun-instalazioak: estolderia). Ibilgailuendako bide guztiak, eraikitzerakoan, euri-uren bilketaz eta kolektorez hornitu beharko dira. Sarearen horniketa-abiadurak isurkinaren jalkipena edo hoditeriaren materialaren higadura ez eragiteko modukoak izan beharko dute. Gehienaz baimenduko den abiadura 3m/seg izango da, hodiak zementu zentrifugatu edo dardaratuz eginak direnean, eta bestelako materialak eginak badira, handiagoa ere izan daiteke. Maldak emariaren arabera zehaztuko dira. Gutxieneko abiadura ez da 0,5 m/seg baino txikiagoa izango. Erregistro-putzuak ipiniko dira 30 m edo 50 m bakoitzeko. Sare-buruetan hustuketa-kamerak jarriko dira garbiketara egiteko.

2.2.6 Energia elektrikoa.

Atal honetan, energia elektrikoaren transformazioa eta banaketa eta argiteria publikoa sartuko dira.

Banaketa-sareen kalkulua eraikinen ezaugarri, erabilera eta elektrifikazio-mailaren arabera egingo da. Etxebizitzako gutxieneko potentziak honako hauek izango dira:

- Elektrifikazio-maila handia: 8.000 W.
- Elektrifikazio-maila ertaina: 5.000 W.
- Gutxieneko elektrifikazio-maila: 3.000 W.

Biztanleko: 0,6 kW, gutxienez.

Industria-ministerioaren MI BT/010 jarraibideak ezarritako aldibereketasun-koefizienteak erabiliko dira. Banaketa lurpetik egingo da, eta behe-tentsioan 220/127 Voltiokoa izango da; 380/220 voltiokoa ere onartuko da. Transformazio-gune berri bat behar izanez gero, hura eraikitzerakoan, inguruko bolumen-baldintzak eta bereziki estetik-baldintzak begiratu beharko dira.

Herri-argiteriari dagokionez, Herrilan eta Hirigintza Ministerioaren araudiko irizpide eta xedapenei egingo zaie men. Joan-etorri handiko hiri-arterietako argiaren mailak, zerbitzuan, 30 luxekoak edo handiagoak izango dira. Bigarren mailako herri-bideetan 15 luxekoak, zerbitzuan. Oinezkoendako baino ez diren kaleek giro-argia izango dute. Edozelan ere, proiektatutako instalazioa eta obren gauzapeña Industria Ministerioaren berariazko legeriari eta enpresa hornitzailearen xedapenei jarraituko zaizkie, zorrotz.

2.2.7. Lurzoruaren tratamendua.

Eraikinen arteko espazio libreetan lurzorua dagokion erabilera-arabera egongo da tratatuta.

Oinezkoendako bideak behar bezala zolatuko dira.

Berdegune publiko eta lorategiak ertz eta zintarriz egongo dira zedarriritu, argiro, zoladuraren maila berean, ahal dela.

Oro har, ateratzen diren espazio libreak, publiko zein pribatuak, zolatutako guneak badituzte (kaleak, pasealekuak, plazak, aparkalekuak, espaloak, eta abar.), parke eta lorategi gisa tratatuko dira, eserleku eta zuhaitzekin.

Kale eta plazetan, zuhaitzak, ongi hazteko behar duten tartea utzita landatuko dira. Bereizki, neguan eguzkiak jotzea interesgarri izan daitekeen lekuetan, hosto galkorreko zuhaitzak ipintzea begiratu beharko da; ez, ordea, ibilgailuendako lekuetan.

Erretxinadun espezieen abarrak oinezkoen eta ibilgailuen joan-etorria ez oztopatzeko moduko garaieran egon beharko dute. Bete ere, eragotzi egingo da zuhaitzek kaleko argia gutxitzea.

Parke eta pasealekuetan behar adina eserleku ipini beharko da.

2.2.5. Evacuación de aguas pluviales y saneamiento.

El esquema de distribución de la red de colectores se refleja en el plano correspondiente del presente Plan Parcial, siguiendo el trazado de las calles públicas.

